


Hosto Baten Pentsakizunak



Ni hosto bat naiz. Hiri handi batetan bizi den zuhaitz batetan dut nire etxea.

Beste mila eta hamar hostorekin batera bizi naiz. Orain dela egun gutxi sortu nintzen, eta udazkenaren bukaeran ximeldu eta hil egingo naiz. Datorren urtean, beste hosto batek beteko du nire lekua, eta ni, mendi eder lore eta zuhaitzez betetako mundu baketsu batetara joango naiz bizitzera. Han beti da udaberria, eta ez naiz gehiago ximelduko.

Nire bizitza laburra izango da, baina biziko naizen hirulau hilabete hauetan, gizonen ohi-turak eta bizitza aztertu nahi nituzke.

Hiru egun bakarrik laramatzat bizirik, baina dagoeneko igarri dut gizonik gehienak ez direla gustura bizi.

Nire ondotik, haurrak bakarrik igarotzen dira ahoan irrifar batekin. Eta, izan ere, mundu honetan, haurrak dira izakirik goxo, umil, alai eta pozgarrienak. Haurrik ez balego, ez luke pena mereziko, hondamendiez beteriko ludi honetan bizitzeak. Haur gaixoek, ordea, ez dute gaur egun, jostatzeko leku askorik.

Hala ere pozik bizi dira.

Pertsona helduak, berriz, ez dute honelako arazo garrantzitsurik, edo, beharbada, gehiegi dituzte, eta beti serio eta kopetilun doaz. Bizitzari ilusio eta poz dena kentzen diote, eta dena, bere beira ilunetik begirutzen dute. Nire bizitza motz honetan, nik, pertsonen jokaera honen arrazoia asmatu nahi nuke. Horregatik, nire ingurua, ongi aztertu behar dut.

Nire etxearen aurrean, bide bat dago. Bide honetatik, berebilak dabilta etengabe, honela ingurua ke zikinez betetzen dutelarik, ke honen kausaz, atzo goizean, ia ito nintzen. Bide erdian, erdi ero dagoela dirudien gizon bat egoten da, eskuekin keinuak egiten eta ahoan duen tresna batekin soinu desatsegin bat sortzen. Hor, berebilen zarata eta kearen artean igarotzen du egun guzia, baina egunen batean berebilen batek harrapatuko du, eta orduan...

Gizon horri, entzun dudanez, «agoazila» deitzen diote, eta istripuren bat gertatzen denean, gizon honek konpontzen ditu arazo denak.

Nire etxearen bestekaldetik «parkea» deitzen dioten plaza antzeko bat dago. Parke hau zuhaitzez inguratuta dago, eta zuhaitzen artean, jendea eguzkia hartzen egoten den eserle-

ku haiek, aitona-amona atseginez beteak egoten dira. Arratsaldeetan, amak edo neska-meak egoten dira, beren haurrak jolasten ari diren bitartean. Iluntzetan, berriz, bikote maiteminduak, beren kontuak belarrira esaten. Honela, nire etxeko alde batetik ikusten denak ez du beste alderditik ikusten denarekin zerikusirik.

Honela, gizona oso izaki arraroa dela konturatzeko hasi naiz. Zeharo txunditurik nauka, lundian bizi den izaki honek.

Batzutan, pertsona bat, haserre eta aurpegi ilunarekin ikusten dudana pertsona bat hurrengo unean, barrezka eta pozez ikusten dut. Gero eta komentzimendu gehiagoz, mundu honetan denak zoraturik daudela pentsatzen dut.

Batzuk, ez dute jateko erarik eta eskean dabilta. Besteak, izugarritzko berebil eta jantziak, eta dirua soberan dute, baina hauei, ez zaie behartsuei laguntzerik bururatu ere egiten. Nik, egia esan, atseginago dut bizitza labur baina pozgarria, gizonen bizitza luze eta desatsegina baino.

Hilabete oso bat igaro da, eta ez dut nire helburua lortzeko ideia garbi bakar bat ere atera.


Ez ditut gizonak ulertzen, ezin dira ulertu. Honela, orduak, egunak eta asteak pasatzen ditut nire ingurua aztertzen, baina nahiz eta gazte eta zaharrak, ongi begiratu, ez dut ezer ere aurreratzen. Jendea oso ezberdina dela elkarren artean, eta zeinekin hitz egiten zauden, ia denak, ezberdin jokatzen dutela ohartu naiz.

Haurrak eta zaharrak gero eta gehiago atsegin zaizkidan bitartean, pertsona helduengandik gero eta urrutiratzeko gogo gehiago dut.

Egunez, munduak eroetxe bat dirudi. Gaez ere badira bidean dabiltzan berebilak, baina gauak, hala ere, badu halako sorgindura berezi bat.

Gaez, nire etxearen alde batean, gautxoriek, beren kantu bereziak abesten dituzte. Iluntasunean, hontzen begi borobilak ikusten dira eta gauza denak ezberdin ikusten dira gaez.

Gaez, ez da nabaritzen gizonen maltzurkeria, eta ilunpetan ez dira aberats eta behartsuak ezberdintzen kaleak, argiz beterik egoten dira eta paradisu bat dirudi. Mundua bakez beterik dagoela iruditzen zait, baina badakit ezetz, eta laster jaitsi naiz berriro amets horietatik.



Uda erdia da, esperientziz betetako oporrak joan dira nire albotik. Mundua gero eta okerrago doala diote batzuk. Gero eta garestiago omen dago bizitza beste batzuren ustez. Eta noizean behin, gaur eguneko haurrak txoriburu batzuk direla ere aditzen dut.

Bakoitzak bere pentsatzeko era du, berea defendatzen du, aurrera eraman ahal izateko asmoz. Eta oso ondo iruditzen zait. Baina batzutan, jendeak bere ideiak aurreratu nahian, besteenak zapaltzen ditu, honela anarkia osoan jokatuz.

Bestalde, gizonak badu beste ohitura txar bat ere. Gizona ezin da lasai bizi, besteak egiten dutena jakin eta kritikatu gabe. Ezin dute auzoa bakean utzi, eta bere mugimendu guztiak aztertu eta zabaldu edo hedatu behar dituzte. Ezin liteke bat lasai bizi.

Baina ez da hau dena, gaizki dago lehen esandako dena egitea, baina oraindik okerrago da, hau egin ondoren, bakoitzak bere erru edo faltak bilatu eta zuzentzen ez jakitea.

Mundu hau aldrebeskeriaz betea dago, eta Jaunak gizonei lurreko agintea uztean gaizki egin zuela, pentsatzen dut.

Mundua gaizki doa baina besteek konpon dezatela. Hark ez omen du beste gauza hau egiten, baina nik ere ez dut egiten. Bestalde, lurraldeetako agintariek ere ez dute ezertxo ere egiten. Aberasten dira beren aginte denboran, eta ondoren beste batj uzten diote lekua. Beharbada, nik ere, mundu guzia, eta jende dena kritikatu dut.

Jaio nintzenean, ordea, gizonak ezagutzeko gogoia nuen. Zertxobait ezagutu ostean, pentsatzen dudana kontatu dut, eta orain, nire azken egunak iritsi dira, eta nire pentsakera eta iritziak zuei azaldu ondoren, lasaitasunez beterik noa.

Nire eginkizuna bete dut, baina gauza bat bakarra nahi nuke:

Mundua hobea izatea,
eta denok haurren antz piska bat har dezagula...

